BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**PRENTSARAKO OHARRA**

# BATZARRETAKO TALDEEK BALIABIDE EKONOMIKO GEHIAGO ESKATU DITUE, GARRAIO PUBLIKOAREN USTIAPENAK JASAN DAUEN GALEREA ESTALTZEKO, BAINA ZENBATEKOAK ADOSTU BARIK

- **Garraio eta Mugikortasun Jasangarrirako batzordeak ez dau onartu, koronabirusaren eragina dala eta sektoreak izango dauen galeraren "parte" bati aurre egiteko funts berezia sortzeko Eusko Jaurlaritzari "40 milioi euro" jartea eskatzen eutsan EH Bilduren arauz besteko proposamena.**

- **Batzordeak ez dau onartu "gasolinoak" barik sisteman sartzeko Elkarrekin Bizkaia taldeak aurkeztu dauen arauz besteko proposamena.**

(*Bilbon, 2020ko irailaren 17an*). Bizkaiko Batzar Nagusiek euren "ardurea" erakutsi dabe gaur lurraldean beharrean ari diran garraio publikoko operadoreen ekonomia arloko nondik-norakoa ikusita, koronabirusa dala eta erabiltzaileen kopuruak izan dauen jatsiera handiaren eraginez. Horrek ondorioak izango ditu operadoreen balantze ekonomikoetan. Batzarretako talde guztiak bat etorri dira esatean "beharrezkoa dala baliabide ekonomiko barriak bideratzea kalidadeko zerbitzua bermatzeko, baina ez dira ados jarri zulo hori konpontzeko moduan.

EH Bilduk 40 milioi euroko funtsa jarri dau mahai ganean, arauz besteko proposamen baten bitartez. Proposamen horretan Eusko Jaurlaritzari funts ekonomiko espezifiko bat osatzea eskatzeko esaten jakon Aldundiari. Funts horreetatik "15 milioi Bizkairako" izango litzatekez, Raúl Mendez batzordekideak esan dauenez. Diru-kopuru hori, garraio publikoaren arloan eskumenak dituen lurraldeko tokiko erakundeei egongo litzateke zuzenduta, "jarduerak eragiten dituan gastuei eta inbertsino barriei" erantzun ahal izateko.

Koalizino abertzaleko batzordekideak azaldu dauenez, bete taldeak "zulo" horri aurre egiteko planteetan dituan ekimenetako bat baino ez da. Kalkuletan dabenez, zulo hori "50 milioi eurotik gorakoa" da Bizkaian bakarrik, horreetatik "6 milioi Bilbobusen, 14 milioi Bizkaibusen eta 30 milioi baino gehiago Metro Bilbaon", eta kopuru horreei, beste operadore txikiago batzuen balantzeetan egon daiteken "beste milioi bat" gehitu beharko jake.

Ekimena ez da onartu, kontrako 10 boto (Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Berezia-PP), 2 abstentzio (Elkarrekin Bizkaia) eta aldeko 3 boto (EH Bildu) jaso ditualako.

Foru Gobernua eusten daben Batzarretako taldeak ados agertu dira, PP eta Elkarrekin Bizkaia taldeak bezala, gaiaren muinagaz, baina ez txartelen salmentaren ohiko diru-sarrerak murriztu diralako sortu dan galereari aurre egiteko erabili gura dan tresneagaz. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek, zuzenketa-eske baten bitartez, eskaria egin dabe, garraio arloan eskumenak dituen erakunde guztiei eskatzeko “COVID-19aren krisia dala eta aurrera eroan beharreko Ez Ohiko Planen barruan, uri barruko eta uri arteko garraio publikoan dituan eragin kaltegarriak kontuan hartu, eta horreei eustea eta gaur egun eta etorkizunean hobetzea bermatzeko behar diran baliabide ekonomikoak bideratu daiezan, hori dalako gizarte arloko iraunkortasuna eta kohesinoa lortzeko tresnarik onena”.

EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Elkarrekin Bizkaia taldeek euren “zalantzak” erakutsi ditue koalizino abertzaleak emon dauen kopurua kuantifiketako moduaren aurrean, baina argi eta garbi itzi dabe, dana dala, “ahal dan guztia” egin behar dala garraio publikoari eusteko eta hobetzeko. “Badakigu erakundeak alkarren artean berbetan dabilzala konponbidea bilatzeko, eta konponbide hori ez da zertan Funts bat sortzera mugatu behar”, azaldu dau Ekain Rico batzordekide sozialistak. Batzordekide horrek agur esan deutse gaur Garraio eta Mugikortasun Jasangarrirako batzordeko kideei, Eusko Legebiltzarrera doa eta.

“GASOLINO” ZERBITZUAK ETA BARIKA

Batzarretako taldeak ez dira ados jarri Erandio-Barakaldo eta Portugalete-Getxo ibilbidea egiten daben “gasolinoak” Barik sisteman sartzeko Elkarrekin Bizkaia taldeak egin dauen eskariaren ganean. Talde moreak, Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bizkaiko Garraio Partzuergoari (BGP) enpresa kudeatzaileakaz alkarlanean aritzeko eskatzea bilatzen eban, zerbitzu horreek BGPk kudeetan dauen sisteman sartzeko. Bigarren lerroaldean, foru erakundeari “garraio mota horri publizidadea eta bultzadea emotea” eskatzen jakon, “ibilgailu pribaduaren ordez” erabilteko.

Aurreko puntuan gertatu dan moduan, Bizkaiko Batzarretako ganerako taldeak ados agertu dira proposamenaren “azkenengo helburuagaz”, asmoa “garraio publiko sare guztia Barik sistemaren barruan egotea” dalako, baina enpresak dira sistema horretan sartzeko “interesa erakutsi behar dabenak”, adierazo dau Unai Lerma jeltzaleak. Enpresen erantzuna “baiezkoa” izan da daborduko, erantzun dau Lobatok.

Azkenean, ekimena ez da onartu, kontrako 9 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE), eta aldeko 6 boto (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta PP) jaso ditualako.

GARRAIO PUBLIKOAREN ETA TXARTEL BAKARRAREN GANEKO TXOSTENA

Elkarrekin Bizkaia taldeak galdetuta, Miguel Ángel Gómez Viar Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko foru diputatuak jakinarazo dau Bizkaiko Garraio Partzuergoak "2019ko abenduaren 26an" "jaso" ebala Bizkaiko Garraio Publikoaren 2018-2028 Plan Estrategikoa, eta Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritza barria osatu ostean aurkeztuko dala. Izan be, bederatzi kideetatik hiru, orain denpora gitxi osatutako Eusko Jaurlaritzak izentau behar ditu. Emilio Lobato Elkarrekin Bizkaia taldeko ordezkariak atzerapena penagarria dala esan dau, 2019. urtearen bukaeran aurkeztu behar zalako. "Bederatzi hilebete igaro dira".

**NOTA DE PRENSA**

# LOS GRUPOS JUNTEROS PIDEN MÁS RECURSOS ECONÓMICOS PARA CUBRIR EL DÉFICIT DE EXPLOTACIÓN DEL TRANSPORTE PÚBLICO PERO SIN ACORDAR LAS CUANTÍAS

- **La comisión de Transportes y Movilidad Sostenible rechaza una proposición no de norma de EH Bildu en la que se solicitaba al Gobierno vasco que aportara "40 millones de euros" para crear un fondo especial que hiciera frente a "parte" del déficit del sector por el impacto del coronavirus.**

- **La comisión rechaza una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia para que los "gasolinos" se incorporen al sistema Barik.**

(*Bilbao, a 17 de septiembre de 2020*). Las Juntas Generales de Bizkaia han mostrado hoy su "preocupación" por la deriva económica de los distintos operadores de transporte público que operan en el territorio debido a la drástica reducción de usuarios por el impacto del coronavirus y a las consecuencias que tendrá en sus balances económicos. Todos los grupos junteros han coincidido en que se hace "necesario" destinar nuevos recursos económicos para garantizar un servicio de calidad, pero no se han puesto de acuerdo en cómo se debe atajar este agujero.

EH Bildu ha puesto encima de la mesa un fondo de 40 millones de euros a través de una proposición no de norma en la que se instaba a la Diputación a que pidiera al Gobierno Vasco la creación de un fondo económico específico, de los que "15 millones serían para Bizkaia", según el apoderado Raúl Méndez. Este montante iría destinado a las entidades locales del territorio con competencias en materia de transporte público, para hacer frente "tanto a los gastos de actividad como a las nuevas inversiones."

El apoderado de la coalición abertzale ha explicado que ésta es sólo una de las iniciativas que plantea su grupo para hacer frente en parte a un "agujero" que estiman en "más de 50 millones de euros" sólo en Bizkaia, de ellos "6 millones" corresponderían a Bilbobus, "14 millones a Bizkaibus y más de 30 millones a Metro Bilbao", a lo que habría que sumar "hasta 1 millón de euros" por las pérdidas de otros operadores más pequeños.

La iniciativa ha sido rechazada por 10 votos en contra (Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y grupo Mixto-PP), 2 abstenciones (Elkarrekin Bizkaia) y 3 votos a favor (EH Bildu).

Los grupos junteros que sustentan al Gobierno foral han mostrado, al igual que PP y Elkarrekin Bizkaia, su conformidad con el fondo de la cuestión pero no con la herramienta que EH Bildu ha planteado para atajar ese millonario déficit provocado por la reducción de ingresos corrientes por la venta de billetes. PNV y PSE-EE han planteado, a través de una enmienda no admitida, que se solicite, al conjunto de las instituciones competentes en materia de transporte, a que "en los Planes Extraordinarios a desarrollar con motivo de la crisis del COVID-19, se tengan en cuenta los impactos negativos en el transporte público urbano e interurbano, y se destinen recursos económicos para garantizar su sostenimiento y mejora presente y futura, como mejor instrumento de sostenibilidad y cohesión social".

PNV, PSE-EE, PP y Elkarrekin Bizkaia han mostrado sus "dudas" en cómo la coalición abertzale ha cuantificado esa cifra, dejando claro no obstante que se debe hacer "lo posible" por el sostenimiento y la mejora del transporte público. "Nos consta que las instituciones están dialogando para encontrar una solución que no tiene por qué ser solo la creación de un Fondo", ha explicado Ekain Rico, juntero socialista que se ha despedido hoy de los miembros de la comisión de Transportes y Movilidad Sostenible debido a su marcha al Parlamento vasco.

## SERVICIOS DE "GASOLINO" Y BARIK

Los grupos junteros no han conseguido tampoco llegar a un acuerdo en base a la petición de Elkarrekin Bizkaia de incorporar a los "gasolinos" de Erandio-Barakaldo y Portugalete-Getxo el sistema Barik. El grupo morado pretendía que las Juntas Generales de Bizkaia instaran a la Diputación Foral de Bizkaia y al Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB) a colaborar con las empresas gestoras para integrar dichos servicios en el sistema que gestiona y coordina el CTB. En un segundo punto, se pedía a la institución foral "publicitar y promocionar este transporte para fomentar su uso en detrimento del vehículo privado."

Al igual que han hecho con el punto anterior, el resto de grupos de la Cámara vizcaína ha mostrado de nuevo su conformidad con el "objetivo final" de la propuesta, ya que "lo deseable es que toda la red de transporte público esté integrada en el sistema Barik", pero deber ser las empresas "las que tienen que mostrar interés" en incorporarse al sistema, ha advertido el jeltzale Unai Lerma. A Emilio Lobato de Elkarrekin Bizkaia le consta que la respuesta de las empresas "ha sido ya afirmativa".

La iniciativa ha sido desestimada finalmente por 9 votos en contra (PNV y PSE-EE) y 6 a favor (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y PP).

## INFORME SOBRE EL TRANSPORTE PÚBLICO Y EL BILLETE ÚNICO

A preguntas de Elkarrekin Bizkaia, el diputado foral de Transportes y Movilidad Sostenible, Miguel Ángel Gómez Viar, ha informado de que el Plan Estratégico de Transporte Público de Bizkaia 2018-2028 fue “recepcionado” por el Consorcio de Transportes de Bizkaia “el 26 de diciembre de 2019” y será presentado una vez que se conforme la nueva Autoridad de Movilidad de Bizkaia, ya que tres de sus nueve miembros deben ser nombrados por el recién constituido Gobierno vasco. El representante de Elkarrekin Bizkaia, Emilio Lobato, ha lamentado la demora, ya que dicho informe tenía que haber sido presentado a finales de 2019. “Han pasado nueve meses”.